

Etsai desdetxa

GURE BARRUNBEHETAN zizareek kalte egiten duten eran, lurrean mesede besterik ez dute egiten. Han ere, kalte egiten duen aurkari jende faltarik ez da, ordea! Onddoak direla, birusak direla, nematodoak direla, karraskariak direla, intsektuak direla... Hau da hau kontrario desdetxa, etsai armada! Zizare kaltegarri haien aurka bezala, gudaroste horri aurre egiteko landare aukera polita dugu eskueira. Maiz aipatu baditugu ere ez genituzke sekula ahaztu behar, eta botika kimikoak baino lehenago ekarri gogora eta erabili. Pozoiak gero ere hor izango dira...

Hesteetako bizioak kanporatzen dituen baratxuriak (*Allium sativum*) bateren edo besteren batengana hurbiltzeko aukerak zapuzteko usainean duen indarra ezagutzen dugu. Duzun gosearen arabera usain gozoena kirats atsituena daiteke. Izugarri-izugarri ona da bai baratxuria. Baratxuriaren aldamenean bizitzeko mentura egokitu zaion landareak ez du zori makala, kukuak jo dio. Onddoek sortutako gaitzak ez ditu sendatzen, baina sartzea hein batean eragotzi bai. Zorri, akaro eta beste ia edozein arerio izutu eta uxatuko



LOWJUMPINGFROG-CC BY

Baratxuria, *Allium sativum*, primerakoa duzu zorriak uxatzeko, besteak beste. Bortusaia, *Ruta graveolens* (eskuineko argazkian), berriz, zorriok garbitzen da iaioa.



JORG HEMPEL-CC BY SA

du. Ondoan baratxuririk ez duen landareari bere ura eman behar... Hamar gramo baratxuri xehatu eta litro bat uretan egun betez eduki; hogeit bat minutuko irakinaldia eman eta hoztu. Landareak eta inguruko lurra busti, goizean goiz edo ilunabarrean, argiak eta tenperatura altuek moteldu eta andeatzen baitute. Antzeko lana egiten du tipulak, *Allium cepa*. Tipula bat txikitu eta litro bete uretan bost bat minutuz egosi. Hoztutakoan landarea blaitu.

Landareon ur horiek beste botika naturalekin nahasita erabili daitezke, azeri-buztana (*Equisetum arvense*), osina (*Urtica dioica*) edo tabakoarekin (*Nicotiana tabacum*) egindakoekin, adibidez.

Ur horietakoa da bortusaiarena, *Ruta graveolens*, erruda usainduna ere deitzen denarena. Etxe ondoan lan polita egiten du, bere usainaz euli eta eltxo jendea uxatuz. Kuxidaderako joera nabarmena du bortusaiak: zorriak garbitzen iaioa da. Lagun baten aitak, Erramunek, oiloak zorritz josita zituela eta ea erruda non topa galdezka etorri zait; bere ama zenak hala egiten omen zuen eta. Landareen zorriak ere garbitzen ditu. Baita, kaskamotz edo kalpar, ilaje guztietako lagunena ere; geureak, alegia. 200 gramo bortusai litro ureko, baratxuria bezala prantatu. Gero ilea, luma, hostoa, duzuna duzula, ongi busti. ■



VI. EUSKAL
SOZIOLINGUISTIKA
JARDUNALDIA

2013ko urtarrilaren 31

- Kursaal Aretoa
- Donostia



Ikasleen Jarduna:
emaitzen hausnarrean
ARRUE Ikerketa

Ikasleen hizkuntza erabilera gelan eta jolaslekuan:
Ikasledeen artean eta irakasleekin

